

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Hamalau lagun Truke  
Programa barruan /8**

LITERATURA

**Literatura erotikoa  
aztergai HUEZIn /9**

LEINTZ GATZAGA

**Martxoaren 8ko  
biharamona /10**



LURRALDE ZATIKO

PLANA

DATOZEN 15 URTEETAN HERRIAN EGIN BEHARREKOAK ARAUTUKO DITUEN PLANA AZTERTU DU UDALAK

GAZTERIA: GAZTE-LEKUA JARRIKO DA ABIAN/5 • KIROLAK: DORLETAKO AMA /6

## GUARDIAKOFARMAZIA

**ZAPATUA, 15**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 16**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**OROKORRAK**

Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide elkarteak ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Institutua ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxiko ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 71 19 59  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka Haur Eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Saretxo ..... 943 71 26 56  
Taxi geltokia ..... 943 79 22 33  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALTAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIK**

SOS Deiak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

## MEZAK

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00, 12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Zapatuetan: 18:30  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRINO**  
Domeketan: 12:30

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**  
Domeketan: 11:30

## OHARRAK

**TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX**  
*Katxiporreta* emanaldia aurkeztuko dute Takolo, Pirritx eta Porrotxek martxoaren 22an, kirol etxean, 17:00etan. Sarrerak salgai daude ludotekan eta kirol etxean: aurrez erosiz gero, 2,50 euro eta egunean bertan, 3,60 euro.

**GAZTE-LEKURAKO BEGIRALEA**  
Poxpolin Aisialdi Taldeak begiralea behar du gazte-lekurako. 12-16 urte bitarteko gazteekin egon beharko du asteburu, jai bezpera eta jaiegunetan, 17:00etatik 21:00etara. 18 urtetik gora izatea eta euskaraz jakitea eskatuko zaizkio. EGA eta aisialdiko tituluak izatea, ikasketak eta eskarmentua ere baloratuko zaizkio. Curriculumak udaletxean utzi edo *kultura@aretxabaleta.net* helbidera bidali, martxoaren 19a baino lehen.

**ZURE OHAR ETA DEIALDIK ARETXAGAZETA-N**  
Aretxabaletarrei ohar bat jakinarazi gura badiezu, hemen duzu tarte egokia. Deitu edo bidali zure oharra:  
Tel.: 943 79 86 21  
E-postaz:  
*aretxagazeta@goiena.com*

## LORAMENDIREN AGENDA

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
Iker eta Eneko Pou anaiek diapositiba emanaldia egingo dute hilaren 20an, udaletxe zaharrean, 19:00etan: *Muturreko eskia Pirinioetan*.

**KORRIKAKO DENDA**  
Hilaren 22an, Takolo, Pirritx eta Porrotx datozela aprobetxatuta, Korrikako materiala jarriko dute salgai kirol etxean, 17:00etan.

## ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN

### Korrika 9 pasatu zen Gasteizera bidean


Garazin hasi zen Korrika 9, 1995eko martxoaren 17an, eta 26an bukatu zen, Gasteizen. *Jalgi hadi plazara* leloa izan zuen. Aretxabaletara Gellaotik sartu zen martxoaren 23an, 06:30ean. Aurreko egunean, bestalde, ikastetxeetako ume eta gaztetxoek Korrika Txikia egin zuten.



## BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

### "Txirritxua"

Likido zorrotada.  
—Gure iturririk udan txirrixo txikixa dauka.  
—Egundoko odol-txirrixua botaiaz eruan zeben ospitalera.



## ZORIONAGURRAK




ARETXABALETA  
**Jon Andoni Jaka**  
Otsailaren 18an, 6 urte. Zorionak, etxeko partetik. Aupa, Jon Andoni!



ARETXABALETA  
**Maria Jaka**  
4an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA  
**Maddalen Antuñano**  
13an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA  
**Beñat Illarramendi**  
14an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA  
**Begoña Errasti**  
15ean. Zorionak eta muxu handi bat, loba guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Iratxe Bengoa**  
17an. Zorionak! Ondo pasatu! ARETXAGAZETA-ko langileon partetik.



ARETXABALETA  
**Kepa Mendieta**  
18an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA  
**Iker Hernández**  
19an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA  
**Gorka Bergantiño**  
19an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA  
**Amaia Agiriano**  
19an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



**ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA**

Mitarte, 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01



**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**BENGOA URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak


Durana, 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

**Expres**




Santakurtz, 16  
943 79 23 43


## ATREBENTZIAEZPADA/ Urkulun 400 etxe eta beste urtegi bat egin gure daue. Ze pentsetan jatzu?



**JON ANDER LOIDI**  
Langillie




**JESUSA URRUTIA**  
Jubilaue




**JOSEBA ARANA**  
Langillie



**PATXI ALTZOLA**  
Langillie



**Mª JOSE ETXEBARRIARTEUN**  
Langillie



**AINZANE URRETA**  
Jubilaue

Hori jentiarri galdetu biher jako; herritarrei eta, batez be, Urkulun bizi dienei. Gureko neuke jakin plan hori zein egin dauen. Nik, behintzet, ez dot ekohiri-rik eta holakorik inguruen gure.

Txarto. Ez naz plan horren aldeke. Holako proiektuekin galtzen dabil inguruko naturaleza dana. Guri, gainera, galdetu be ez duskue egin ze pentsetan jakun plan hori.

Neure ustez, horreik parajiok oin dauzen moduen geratute hobeto dauz. Gainera, han bizi garenoi, aurrez galdetu barik, gero dana egindde dauenien erakusten duskue proiektue.

Lehenago be holako proiekturen bat aurkeztu euen, eta orduen be, oin moduen, kontra ninguen. Neureta-ko, behintzet, horreik parajiok oin dauzen moduen edarto dauz.

Txarto dauela. Lelengo hamengo jentiarri galdetu biherko leuskie holakorik gure dauen edo ez. Nik, behintzet, argi dauket plan hori ez dala aretxabaletarrondako eginddakue.

Pantanuen asuntue ez dot txarto ikusten. Horrenbeste etxebizitza, barrez, lartxo izengo dielakuen nau. Turismo apur bat komeni bada, pantano bat egittie ez litzake idea txarra izengo.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK BEIRA BATZECO KANPAINARI** Debagoieneko Mankomunitateak ostalaritzako beirak batzeko ekimena jarri du abian. Hala, gura duten jatetxeetako arduradunei eta tabernariei beirak modu errazagoan batu eta edukiontzi berdera eramateko zerbitzua eskainiko die Mankomunitateak. Era berean, ostalaritzakoek beira guztia birziklatzeko konpromisoa hartuko dute. /A.L

### ETABARRUAN...

HIRIGINTZA /04

#### Lurrealde Zatik Planari

Lur antolamendua arautuko duen Lurrealde Zatik Planari alegazioak aurkeztuko dizkio Udalak.

GAZTERIA /05

#### Poxpolin Gazte gazte-lekua

Martxoan zabaldu gura du gazte-lekua Udalak. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako izango da.

KIROLAK /06

#### Dorletako Ama taldea

Dorletako Ama txirrindularitza eskolako hiru aretxabaletarrek denboraldia hasi dute.

### ASTEKODATUA

# 8.145

**EURO GASTATUKO DITU UDALAK GAZTE-LEKUAN**

Udalak gazte-lekua ireki gura du herrian, eta horretarako 8.145,78 euro gastatuko ditu. Aurrekontu horretatik diru gehien gazte-lekuez arduratuko den langileari ordaintzeko erabiliko du.


### BESTEKEESANA

**Espondilitis Ankilopoitikoa gaixotasunak garapen maila desberdinak ditu.**

Gaixotasunaren maila neurtzeko baremo batzuk daude eta horietako bat odolaren sedimentazio abiadura da. Nik adibidez, abiadura goienean 39an eduki dut. Pello Zubiriak berak esan didanez berak abiadura 109an eduki du. Nik abiadura 39an izan dudanean, minak jota egon naiz, ezin mugitu, ezin hitz egin... Gaixotasun honek artikulazio eta giharrak erasotzen ditu eta gaixotasun erreumatikoetan, maila batzuetatik aurrera behintzat, min-korrenetakoa da. Pazientzia joan diezazuke, mina konstantea baita. Egia esan asko arduratzen nau Pelloren egoerak. Estres egoerak, lanak, gertuko baten heriotzak gaixotasuna honen broteak eragin ditzake.

**MARTXI PÉREZ**  
'Argia'/03-03-09

### HERRITARRENBERBAK/ Felis Beltran de Heredia



*Banaketa ondo egizue, mesedez*

Gogoan dut zela hasi ginen ARETXAGAZETA zahar hura egiten. Inolako baliabide barik, baina izugarrizko gogo eta ilusioekin. Hiruhilabetekaria izan zen, eta bi urte iraun zuen. Ostean, formatu txikiko ARETXAGAZETA etorri zen. Hamabostekaria, eta hori ere ordu asko sartuta egindakoa. Urteek aurrera egin ahala diseinua aldatu zitzaion, itxura ere bai, eta bazkideak ere ugaritu egin ziren. Orain urte eta erdi inguru ARETXAGAZETA kendu zigun Goienak. Gure aldiakari apal eta herrikoia kendu zigun beste aldiakari berri bat emateko. Ez zen nire gustuko aldaketa izan baina onartu egin behar, eta ARETXAGAZETARI leial izaten jarraitu dut.

Orain, ostera, arduratuta nabil. Oso arduratuta. Nire kezka ez dator langileen lana ez delako egokia, edo Goienan ez dutelako behar bezala kudeatzen. Ez. Banaketak kezkatzen nau. Bai, banaketak. Azken

asteotan, edo hilabeteotan esatera ere ausartuko nintzateke, ez dute batere ondo banatzen. Aurreratu batzuetan aldizkariak lurrean botata uzten dituzte, eta beste batzuetara heldu ere ez dira egiten. Beraz, herriko etxe askotan ikusi ere ez dute egiten.

**"Azken asteotan, edo hilabeteotan esatera ere ausartuko nintzateke, ez dute batere ondo banatzen"**

Zertarako kazetarietaste osoan egindako lana? Zertarako herriko komertzio eta enpresek jartzen dugun publizitatea? Kazetarien lana besteko garrantzitsua da banaketa. Banaketa txarto eginda herritar gutxi batzuek ikusiko dute aldiakariaren datorrena. Banaketa ondo eginez gero herritar guztiek ikusi eta irakurriko dute. Ez dakit zeinena den ardurak, Goienarena, ARETXAGAZETArena edo banatzaileen (azken hauena bai, behintzat), baina mesedez lehenbailehen konpondu arazoa. Azken baten, aretxabaletarrok gara kaltetuak herriko berriak eta herritarren gorabeherak ez zaizkigulako ailegatzen.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



M. J. Aretxaga

## Gazte-lekua herrian

Gazteak sarritan kexatzen dira herrian eurentzako ezer ez dagoela. Neu ere ados nago horrekin, egia da gazteendako egoteko lekua falta dela gurean. Sarritan kalean jarrita ikusten ditut, egonean. Horri irtenbidea emango dio laster martxan jarriko den gazte-lekuak. Hamabi urtetik hamasei urte bitarteko neska-mutikoez izango dute aukera bertan izena emateko. Aste bukaeretako zerbitzua izango da, eta gazteen aisialdia beteko du. Gazteekin lan egiteko ere begirale bat behar da. Beraz, horrelako lan batean zuen burua gustura ikusiko bazenute hortxe duzue aukera.

Beste zerbitzu bat ere gaur jarriko da martxan: KZ Gunea. Ordenagailuen mundua eta Internet gertu-gertutik ezagutzeko aukera izango dute herriarrek. 18 urtetik gorako edozeini zuzenduta dago. Gunean **Garbiñe Alkorta** arituko da monitore lanetan. Neuk ere hartu behar dut parte, ia behingoz jendearen ahotan barra-barra dabilzan hitzok zer esan gura duten ikasten dudana: *chat*, bilatzaileak, nabigatu... Hau guztia ezezaguna da niretako eta gogo izugarria dut mundu hau gertutik ezagutzeko. Hurrengoan ikasi dudanetik zerbait kontatzeko moduan izango naiz, beraz, datorren alean kontatuko dizuet.

**LUR ANTOLAMENDUA/** Martxoaren 31n bukatuko da lur antolamendurako proposamenari alegazioak aurkezteko epea

# Herrian zer egin dioen txostenari alegazioa aurkeztuko dio Udalak

MIRARI ALTUBE

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak aldaketa ugari proposatu dituzte ibarrean datozen 15 urteotarako. Aipagarrienak, Kurtzebarriko maldan egiteko asmo duten 400 etxebizitza eta Urkulu-II urtegia. Alegazioak aurkezteko epea martxoaren 31n bukatuko da.

Urtarrilaren bukaeran jaso zuten Udalean Lurralde Zatik Planaren txostena. Bertan, datozen urteotan Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak gure ibarrean eta Aretxabaletan egin gura dituzten asmoen berri ematen dute.

### 400 ETXEBIZITZA URKULUN

Lurralde Zatik Planak Aretxabaletan etxebizitzak egiteko eta industria kokatzeko izendatu behar diren lurak finkatzen ditu. Aldaketa handia proposatzen dute, gainera, Bedoñatik hasi eta Eskoriatzako Lete auzora bitartean 1.000 etxebizitza egiteko asmoa dute-eta. Aretxabaletan, Kurtzebarriko maldan, Urkulun, 400 etxebizitza egingo dituzte.

Horrez gain, herrian bertan ere zenbat etxebizitza egin daitezkeen zehaztu dute: "Gu ez gaudere ados", dio Anjel Bergaretxe alkateak, "eta, gainera, kontraesana dago; izan ere, txostenaren arabera etxebizitzak egiteko izendatuta dauden zona batzuetatik kendu egin beharko genituzke etxeak". Gaur egun hiru zona daude izendatuta etxebizitzak egiteko: Apotza-Etxebarri azpiko malda, Beroa eta San Martin. Herrian 600 etxebizitza inguru egin daitezke, eta Urkulun 400 esaten dutenez, guztira 1.000. Aretxabaletar txostenaren ezarritako muga, oster, 900 da. "Kopuruak finkatzean udal autonomiaren kontra egiten dutela uste dugu, datozen urteotan ezin izango dugu-eta gura beste etxebizitza eraiki", dio Anjelek.

### URKULUKO BIGARREN URTEGIA

Urkulun bertan bigarren urtegi bat egitea ere aipatzen da txoste-



Udalak dagoenetan babestu gura du Urkulu, eta ez ditu bateragarriak ikusten nekazari arloa eta *aukerako habitat* delakoa.

nean. Oñatiko lurretan kokatuko da, eta aisialdirako izango da bakar-bakarrik: kanpina, hotela, bela-eskola... izango ditu. Txostenaren arabera, aisialdirako ekintzetan hutsune handia daukagu, eta hori ase guran egingo

dute Urkulu-II. "*Aukerako habitat* izena eman diote txostenean, eta nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin bateragarria izango dela diote, baina guk geure zalantzak ditugu", dio Jose Mari Segovia Udaleko Hirigintza tek-

nikariak. Lurralde Zatik Planen ez da inoiz Urkuluko aberastasuna aipatzen: bertako paisaia eta hegaztiak. Jose Mari Segoviaren esanetan, Urkuluko ekosistemak ez du iraungo kanpina, hotela eta bestelakoak jartzen badituzte. "Txostena idatzi duen inork ez du ezagutzen Urkulu, bestela ez lituzkete proposamen horiek egingo".

Alegazioak aurkezteko epea zabalik dago, martxoaren 31ra arte. Ikusi egin behar plana onartzen den edo ez, baina onartuta ere Anjelek argi utzi gura du horrek ez duela esan gura egun batetik bestera etxeak egiten hasiko direnik: "Udalak gura ez badu ez dira egingo etxeak, geuk eman behar ditugulako baimenak. Hala ere, eskuak erdi lotuta geratuko zaizkigu, beste inon ere ezin izango ditugu egin-eta". Urkulu ingurua etxeak egiteko lurra izendatzen badute norbaiti han etxetxoak egiteko gogo sor dakioke, eta horrek beldurtzen du Anjel.

## Udala ez dago konforme

Astehenean egin zuten ezohiko bilkuran onartu zuen Udalak alegazioak aurkeztea Lurralde Zatik Planari. Hiru alegazio eta ekarpen bat aurkeztuko ditu.

Lehenengo bi alegazioek udal autonomia ez errespetatzea aipatzen dute. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak zehaztu dituzte zenbat etxebizitza egin eta non, baita industriarako zenbat lur izendatu ere. Hirugarren alegazioa Urkuluko inguruneari dagokio. Aretxabaleta Udalak Urkulu eta Kurtzebarri azpiko malda babestu gura ditu, eta "*aukerako habitat*" delakoa eta nekazari sektorea ez ditu bateragarri ikusten. Bukatzeko, ekarpen bat egin du Udalak txostenean: autobiako lanek sortuko dituzten lurrekin kirol eta aisialdirako erabiliko den 90.000 metro koadroko lautada egitea Lausittan.

## LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta



Angelines  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

**GAZTERIA/** Egubakoitzetik domekara bitartean egongo da zabalik, 17:00etatik 21:00etara

# Gazte-lekua zabalduko dute, 12 eta 16 urte artekoendako

MIRARI ALTUBE

Martxoko azken astean zabalduko dute Poxpolin Gazte gazte-lekua. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako izango da, eta lehen ludoteka egon zen lekuan egongo da. Asteburu, jai bezpera eta jaiegunetan zabalduko dute, eta begirale bat ibiliko da umeak zaintzen.

Ez da samurra aisialdirako zeregina topatzea. Umeek ludoteka eta jolaslekuak dituzte, gazteak zinemara kanpora joaten dira, eta gaztetxoek zer egin dezakete? Bada, martxotik aurrera gazte-lekua izango dute.

## ASTEBURUAN, GAZTE-LEKUA

Santa Kurtz kalean, lehen ludoteka egon zen lekuan egongo da Poxpolin Gazte gazte-lekua. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako izango da, eta asteburuetan, hau da, egubakoitzetik domekara, jai bezperetan eta jai egunetan zabalduko dute, 17:00etatik 21:00etara bitartean.

Poxpolin Aisialdi Taldeak izango du gazte-lekuaren ardura, eta zabalik dagoen bitartean begirale bat ibiliko da bertan. Hark,

ostera, ez du ekintzak antolatze-ko ardurarik izango. "Ez Udalak ezta Poxpolin Taldeak ere ez dute ekintzarik antolatuko; gazteek eurek esan beharko dute zer egin gura duten, eta zelan", dio Kultura teknikari Inma Miguelek.

## ESPERIENTZIA BERRIA

Astehenean izan zen osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrik

*"Herriko gazteek eurek esan beharko dute gazte-lekuan zer egin gura duten, eta zelan"*

*"Gazte-lekura bakarrik edo taldean joan ahal izango dira, eurek gura dutenean"*

gazte-lekuaren proiektua. Martxoko azken astean jarri gura dute abian, eta uztailean bitartean iraungo du. Poxpolin Taldeak, Kultura teknikariak eta Drogenpeketasun teknikariak osatutako batzordeak egingo dio jarraipena proiektu berri horri, eta, uztailean balorazio positiboa eginez gero, datorren ikasturtean ere jarraipena izango luke. Gazte-lekua abian jartzeko, bestalde, begiralea behar da. Hala, Udalak deialdia kaleratu du.

Edozelan ere, ez da Udalak gaztetxoekin egiten duen lehen esperientzia. Izan ere, *Kuadrillategi* proiektua abian da iaztik, eta zapatu goizetan elkartzen dira begiraleekin herriko hainbat gazte koadrila. "Ez da gauza bera. *Kuadrillategi* bi urteko proiektua da eta koadrilak zapaturo elkartzen dira ekintzak egiteko. Gazte-lekura bakarka edo taldean joan ahal izango dira, eta ez zaie jarraipenik eskatutako. Eurek gura dutenean sartzeko eta irteko aukera izango dute, ordutegi barruan, jakina", dio Inmak.

Hortaz, uztailean bitartean herriko gaztetxoek ere izango dute non egon.



## Aretxabaletarrak, 'Egunkaria'-ren alde

Joan den martxoaren 5ean prentsurrekoa antolatu zuen *Egunkaria*-ri laguntzeko batzordeak. Deialdia egin zuten guztiek ez zuten etortzerik izan, baina han izan ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko arduradun Lore Leainzabarrutia, UZEIko Lexikografia Saileko zuzendari Miriam Urkia eta Dabid Errasti aktorea, besteak beste.

Batzordeko kideek, bestalde, eskerrak eman gura dizkiete herritarrei, Aratusteetan 1.200 euro batu zituztelako. Orain, elkarte eta ikastetxeetara joko dute harpidetzak egitera. /M.A.



## Langabeendako orientazio zerbitzua

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak enplegurako orientazio zerbitzua jarri du abian. Ibarreko langabeen eta enpresen beharrak zeintzuk diren jakiteko eta horiei erantzuna emateko izango da zerbitzua.

Orientazio soziolaborala eskaintzen duen Daiteke enpresak izango du zerbitzuaren ardura, eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen eta Eusko Jaurlaritzako Lan Sailaren laguntzak jaso dituzte. Langabeek Institutura jo dezakete informazioa jasotzera. /M.A.

## LABUR

### Gutunak bidali dizkiete herriko dendei eta tabernei, Korrikari laguntzeko eskatzen

Loramendi EEK gutunak bidali dizkiete herriko dendei eta tabernei, Korrikarendako dirulaguntza eskatzeko. Erantzunak aste hau eta hurrengoa bitartean jasoko dituzte. AEK-k, bestalde, kilometroa erosteko aukeraren berri eman die elkarte eta ikastetxeei. Kilometroak 300 euro balio du, eta erosi gura duenak Arrasateko AEKra jo behar du: 943 77 03 69 edo arrasate@aeonet.net.

### Iñaki Pierrugues PSE-EEko zinegotziak mehatxuzko pintadak egin dizkiotela salatu du

PSE-EEko zinegotziak, Iñaki Pierruguesek, herrian mehatxuzko pintadak egin dizkiotela salatu zuen eguaztenean kaleratutako prentsa oharrean. "Ordainduko duzu" jarri diotela zioen oharrean, PSE-EEri Euskaditik alde egiteko esaten diotela eta Herriko etxean ETA-ren anagrama margotu dutela salatu zuen. Etorkizunean gerta daitekeenaren erruduna Anjel Bergaretxe alkatea dela ere esan zuen.

**OSKAR  
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28

**IBARRA**  
estankoa



**PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA**

**Egunero zabalik**  
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA

**Mortin**  
erloju-denda

**Bere bezeroen  
zerbitzura**

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA

**Aretz**

**taberna**

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

TXIRRINDULARITZA

# Herriko hiru txirrindulari ibiliko dira lehian aurtengo denboraldian

Asier Bengoa aretxabaletarrak txirrindularitza eskolako koordinatzaile lanak egingo ditu

AMAGOIA LASAGABASTER

Joan den asteburuan hasi zuten Dorletako Ama txirrindularitza eskolakoek aurtengo denboraldia. Irailera arte eskolako hiru txirrindulari –gazte, kadete eta infantil mailetan– buru-belarri ibiliko dira lehian. Laguntzaile lanetan, berriz, Asier Bengoa ibiliko da aurten ere.

Dorletako Ama txirrindularitza eskolakoek lasterketaz eta txapelketaz jositako sei hilabete gogor dituzte aurrez aurre. "Astean bost egunean entrenamenduak izango dituzte, beste baten lasterketa eta gelditzen den bakarrean atsedeen hartuko dute". Horixe esan digu Asier Bengoa txirrindularitza eskolako koordinatzaile eta gazteen taldeko zuzendariak.

## TXIRRINDULARI BAKARRA GAZTEETAN

Aurten, hiru aretxabaletar ibiliko dira lasterketetan: Julen Galiano eta Xabier Sierra infantilen taldean eta Antton Anduaga kadete mailan. Horiez gain, Xabier Letek, mendiolarra izan arren herrian ezagun den txirrindulariak, gazteen taldean hartuko du parte.



Gazteen mailan Xabier Lete izango da taldeko txirrindulari bakarra.

Berez, ezin esan daiteke taldea denik. Izan ere, gazteetan Xabier bakarrik ibiliko da lehian: "Geroago eta jende gutxiago dabil txirrindularitzan, eta eskolan egun dugun arazoetako bat horixe da", dio Asierrek.

Edozelan ere, guztiak gertu daude denboraldiari aurre egiteko. Hala, oraingo zapatu goizean, kadete mailakoek Eibarren egingo dute lasterketa. Xabier Letek, bestalde, egun berean arratsaldean izango du proba, Azpeitian.

XAKEA

## Arlutz taldeko hiru lagunek Durangoko Xake Txapelketan hartuko dute parte domekan

Oraingo domekan, hilaren 16an, Durangoko Xake Txapelketa jokatuko dute Arlutz taldeko Andoni Carrascok eta Fran eta Andoni Migelak. Norvehiagoka goizean hasiko dute, eta partidak azkarrak izango dira. Andoni Carrascok lehenengo aldiz hartuko du parte Durangoko txapelketan. Andonik eta Franek, aldiz, esperientzia handia dute txapelketa horretan. Iaz, esaterako, Fran bigarren gelditu zen.

PILOTA

## Martitzenean, hilak 11, Debarroko Txapelketako lehenengo partidua jokatu zuten pilotariak

Aretxabaletako pilotariak ez dute oraindik Udaberriko Pilota Torneoa amaitu. Hala ere, beste txapelketa baten buru-belarri sartu dira. Izan ere, martitzenean, hilaren 11n, Debarroko Txapelketako lehenengo partidua jokatu zuten. Errasti anaiek Lasagabaster eta Altzola izan zituzten aurrez aurre. Partidua Errasti anaiek irabazi zuten, 22-9.

## PARTIDUAK

### FUTBOLA

**UDA-Anaitasuna**  
Preferentea.  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
**UDA-Anaitasuna**  
Gazteen ohorezko liga.  
Zapatua. 16:30. Ibarra.

### PILOTA

**Ordizia (2)-Aretxab.(2)**  
Seniorrak.  
Zapatua. 14:30. Ordizian.


## EMAITZAK

### FUTBOLA

**Hernani 0 UDA 0**  
Preferentea.  
**Hondarribia 3 UDA 0**  
Gazteen ohorezko liga.  
**Bergara 2 UDA 3**  
Bigarren mailako erregionala.  
**UDA/Almen 1 Antoniano 0**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**UDA/Almen 2 Urki 0**  
Bigarren mailako kadeteak.

### PILOTA

**Zumaia 20 Aretxab. 22**  
Gazteak.  
**Aretxab. 22 Bergara 18**  
Gazteak.  
**Bidania 22 Aretxab. 2**  
**Aretxab. 22 Añorga 13**  
Seniorrak.



Zatoz zure Sportland dendara, Garibai Etorbidea, 2-6, Arrasate

www.forumsport.com

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

MUNDUTARRAKARETXABALETAN

SILVIA MONICA PAPI

35 URTE / ETXekoandrea / ARGENTINA

“Herrira etorri orduko zekiten kalean zein nintzen eta nondik nentorren”

MIRARI ALTUBE

Bizitza osoa Buenos Aires hirian pasatu ostean, iaz, ekainean, Silvia Aretxabaletara etorri zen bizi izatera. Bikotekideak, Xabierrek, ekarri zuen gure herrira. Lekeitiarra da Xabier, eta urte askoan Argentinan lanean ibili eta gero Arrasatera etorri da: “Gu Argentinatik irten ginenean egoera okerrera zihoan. Lanik ez zegoen, dirurik ere ez, eta hiriko segurtasuna geroago eta okerragoa zen. *Secuestros express* delakoak egiten hasi ziren, hau da, hiritarrak bahitzen 600 edo 1.000 pesoren truke”.

Aldaketa handia izan zen Silviarendako Aretxabaletara etortzea, duda barik. Hiri izugarria atzean utzi eta herri txiki eta lasaira etorri da: “Oso gustura nago hemen, lasaitasuna dut gogoko, eta horixe aurkitu dut hemen. Familia sumatzen dut faltan, baina ez hiria”. Aretxabaletarren kezarik ere ez dauka: “Hasieran harrituta utzi ninduten; izan ere, etorri orduko zekiten herrian zein nintzen eta nondik nentorren”, dio Silviak. Ez da urte bete herrira etorri dela,




eta dagoeneko lagun koadrila ere badauka: “Oso jende jatorra aurkitu dut, argentinarrak esango genukeen moduan, *macaruda*, eta bai semea, bai ni, berehala egokitu gara herri eta bizimodu berrira”.

“Herrian barneratzeko garrantzitsua dela uste dut euskara jakitea”

Izan ere, Pablo 7 urteko semearekin etorri zen bikotea. Euskararekin arazoak izango ote zituen beldur zen Silvia, baina dagoeneko ulertzen du, eta berba egiten ere ez da atzean geratzen: “Neu ere hasi naiz euskara ikasten. Bizkorrago ikasi gurako nuke, baina ez daukat presarik, eta herrian barneratzeko garrantzitsua dela uste dut”. Oraingoz ez dauka Argentinara itzultzeko asmorik, ezta oporretan ere; gurago du sustraiak ondo errotu gurean eta gero itzuli.

HURRETIK



Alfredo Meabe

KIOSKOA DENDAKUE

Lau urte egin ditu Alfredon kioskuek Durana kaleko alde baten, eta astelehenien lokal barrixe estrenau euen Durana kaleko beste aldeen. Denda barrixe karamelo eta periodikuendako.

Zenbat urte karamelo eta periodiko artien?

Maiatzien zortzi egingo ditut.

Ze dauko denda barrixek zaharrak ez eukena?

Dekoraziñue, ordenadorie eta komune. Jenerue lehengue da.

Zeure gustoko kioskue egin dozu?

Bai. Argi neuken ze gure neuen, eta han eta hemen ikusitako kioskuetan idea barrixek hartu nittuen. Egurre asko ibilli dot berotasune emuteko dendiei.

Ze periodiko saltzen da gehixen?

*Diario Vasco*.

Eta zuk zein dozu gurago?

Bata be ez. *Diario Vasco*, politikie alde batera itxitte, ondo dau. *Deia*-k be azkenengo bi urtiotan hobetu egin dauela uste dot. Dana dala, danetik irakurten dot.

Ze errebista saltzen da gehixen?

*Pronto*, eta gero *Hola*.

Zeuk zein errekomaundako zeuke?

Ezin izengo neuke bat elegidu. Asko dauz, eta gustuek beste horrenbeste.

Kanpoko periodikorik saltzen dozu?

*Le Monde Diplomatique* bielketan dustie. Dana dala, eskatute edozein ekarri leike, zortzi mille inguru dauz-eta.

Lan lotue da?

Bai, hori da okerrera. Langille bi gabitz eta erreleuetan moduen egitten dogu lan.

Pilota ala futbola?

Frantziako Tourre.

Aurten be egingo dozu Quebrantahuesos pruebie?

Ez dot uste, ez naz askorik ibilli-eta bizikletan. Igez be gutxi ibillite fan nitzen, eta larri bukatu neuen.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Goretti Aiastui

Siria eta Jordania / 2002ko abuztua

Goretti beste bi lagunekin batera joan zen Ekialde Hurbilera, eta ez zen damutu. Hori bai, argi utzi gura du herrien historia eta aurreko zibilizazioen aztarnak gustuko ez dituenarendako ez dela bidaia hau.

Sirian sei egun egin zituzten, eta beste sei Jordanian. “Siria pobreagoa da, baina politagoa. Zibilizazio asko pasatu dira bertatik eta oso aztarna interesgarriak utzi dituzte”, dio Gorettik. Kristau mugimenduaren gaineko aztarna ugari daude: Moises hil zen lekua eta San Juan Bataiatzaileak sortu zuen eliza, esaterako. “Aramearrez-Jesusen hizkuntza-berba egiten duten herri bakarra ere Sirian dago, Maaloula da”. Siriako Palmira hiri klasikoak ere ikusgarria ei da: “Eguna zelan argitzen zuen ikusi genuen han, eta benetan ikusgarria izan zen. Oso ondo kontserbatuta dago, gainera. Erromatar galtzadak, foroak, anfiteatroak... daude”.

Jordania aipatzen denean, ostera, bi leku aipatu behar dira: Petra eta Itsaso Hila: “Nabateoek sortu zuten Petra, eta haitz artean eraikitako hiria da. Zibilizazio asko pasatu dira, gainera, bertatik: beduinoak, bizantziarrak... Eta guztiek utzi dute aztarnaren bat edo beste”. Anekdotak ere badauka hemen Gorettik: “Ibarretxe geure hotel berean egon zen, familiarekin zegoen oporretan. Ikusi ere egin genuen, baina ez genuen harekin berba egiterik izan”. Itsaso Hila, bestalde, oso kuriozoso ei da: “Ur gainean hondoratu barik egotea kuriozoso da, baina urraturen bat izanez gero, kontuz!”.

Bizimoduari dagokionez, antzekoa da bi herrialdeetan. Herri txikietan oraindik tradizioen mende daude, emakumeak jantzi beltzez eta aurpegia estalita joaten dira-eta. Hirietan, ostera, askatasun handiagoa dago.

M.A.



Jordanian dagoen Petra hiriaren sarrera haitz artean.



“Aramearrez berba egiten duten herri bakarra Sirian dago”

“Nabateoek sortu zuten Petra; haitz artean eraikita dago”

Iber

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda  
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 14a / 117. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Munduko bederatzi herrialdeetatik etorritako 14 lagun izango dira gurean

AINTZANE GARDOKI

Mundukide Fundazioak laugarren aldiz antolatu du Komunitate Garapenerako Esperientzien Truke Programa. Kooperatibismoaren gaineko esperientziak trukatzeko helburu. Hego Amerikako eta Afrikako 14 gazte gure artean izango dira martxoan.

Esan bezala, kooperatibismoaren gaineko esperientziak trukatzeko du helburu Truke Programak. Aurreko hiru urteetako esperientzia aberatsa izan dela eta, Mundukide Fundazioak aurtengo Hego Amerikako eta Afrikako 14 herritar gonbidatu ditu gurera.

Hain zuzen, Ginea Bissau, El Salvador, Kuba, Peru, Txile, Kolonbia, Brasil, Guatemala eta Ekuatore Gineatik etorri dira; lau emakumezkoak dira eta beste hamarrak gizonezkoak. Denek euren komunitateetako kooperatibetan egiten dute lan.

### AFRIKARA ETA AMERIKARA

Eskoriatzara etorritako lagunak hainbat kooperatibetako esperientziak ezagutzeko aukera izan-



Truke Programako kideek euren komunitateetako esperientziak kontatu zizkieten Arizmendiko ikasleei.

go dute martxoan, eta aurrerago, Mondragon Unibertsitateko 20 ikaslek Hego Amerikako eta Afrikako hainbat komunitateetako esperientzia kooperatiboak

zuzen-zuzenean ezagutzeko aukera izango dute.

Martxoan, Truke Programako kideek ibarreko hainbat enpresa, erakunde, herri ekimen eta

herri bisitatuko dituzte. Han eta hemen hainbat hitzaldi egingo dituzte, eta Euskal Herrian zehar turismo apur bat egiteko ere aprobeztatuko dute.

*Kooperatibismoaren gaineko esperientziak trukatzeko du helburu Truke Programak*

*M.U.ko 20 ikaslek Amerikako eta Afrikako esperientziak ezagutzeko dituzte*

*Han eta hemen hainbat hitzaldi egingo dituzte, eta turismoa egiteko ere aprobeztatuko dute*



### Unibertsitateen arteko txapelketa

Euskadiko Unibertsitateen Arteko Kirol Txapelketako saskibaloiko finalak Eskoriatzako kiroldegian jokatu zituzten hilaren 12an. Aurtengo, MUK antolatu du txapelketa. Erki-degoko hiru unibertsitateetako 350 ikaslek, 114 MUKoak, hartu dute parte. Irabazleek Espainiako Txapelketan, lehengo, eta Munduko Txapelketan (Korean), gero, hartuko dute parte. Esan bezala, saskibaloiko finalak jokatu ziren Eskoriatzan: bai emakumezkoetan bai gizonezkoetan UPV-EHU izan zen garaile.

### LABUR

#### EA eta EAJ elkarrekin aurkeztuko dira

Datorren maiatzaren 25ean izango diren udal hauteskundeetan Eskoriatzako Eusko Alkartasuna eta Eusko Alderdi Jeltzalea elkarrekin aurkeztuko dira koalizioan. Hainbat batzar egin dituzte bi taldeok, eta amaitzear dagoen legealdi honetan moduan, hurrengoan ere elkarrekin lan egiteko asmoa azaldu dute. Oraindik zerrendak guztiz osatzeko dituzten arren, bi taldeok adostu dute zerrendako lehena, hau da, alkategaia, EAko izango dela.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

## OHARRAK

### IPUIN KONTAKETA

'Pako Fakirra' ipuin kontaketa egingo da Udal Bibliotekan datorren martitzenean, hilaren 18an, 18:00etan. Ixabel Agirresarobek eta Iñaki Agirrezabalek eskainiko dute ikuskitzuna.

### GAZTEENDAKO ESKI IRTEERA

12 urtetik gorako gaztetxoendako eski irteera antolatu du Eskoriatzako Gazteria batzordeak. Irteera Astunera egingo dute apirilaren 5ean eta 6an. Interesatuak izena eman beharko dute kultura etxean datorren martxoaren 21a baino lehenago.

## AXTROKIRENAGENDA

### KONTZERTU DIDAKTIKOA

Euskal Herriko musika eta soinu tresnen inguruko kontzertu didaktikoa eskainiko du Juan Mari Beltranek kultura etxean, 19:00etan. Herriar guztiak daude gonbidatuta.

**NAIRA**  
Taberna

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71

## LITERATURA ASTEA HUHEZI-N

# Literatura erotikoa izan dute mintzagai HUHEZIKo Literatura Astean

AMAGOIA LASAGABASTER

Gaur amaitu dute HUHEZIn Literatura Astea. Aurten, Euskal Herriko hainbat idazleren laguntzarekin, literatura erotikoa landu dute Eskoriatzako fakultatean. Horretarako, besteak beste, Luisa Etxenik, Juan Martin Elexpuruk, Jasone Osorok, Paddy Rekaldek, Pako Aristik eta beste hainbat idazle ezagunek erotismoaren gaineko berbaldiak egin dituzte. Hala ere, ez dira berbaldi soilak izan; ekitaldiok hizlariaren eta ikasleen arteko hartumena sendotzeko balio izan dute.

Literatura Astean, baina, benetako protagonistak fakultateko ikasleak izan dira. Izan ere, astean egindako ekitaldi berezi baten, esaterako, eurek aukeratutako testu erotikoak irakurri eta komentatu zituzten.

*"Ekitaldi berezi baten, ikasleek eurek aukeratutako testu erotikoak irakurri zituzten"*

Bosgarren aldia da HUHEZIn Literatura Astea egiten dutela. Azken urteotan gai monografikoak aukeratu dituzte. Eta hala, aurten, literatura erotikoa eskainitakoa egin dute. Antolatuak bazekiten gai horrek Euskal Herrian sekula ez duela presentzia handiegirik izan. Edoze lan ere, oraingo astean, jarraitzaileak, behintzat, badituela erakutsi dute Eskoriatzan.

## TXUTXUMUTXUA



### Amuska, Emakumearen egunean, Bilbon

Martxoaren 8an herriko emakumeek egun pasa egin zuten Bilbon. Arte Ederretako Museoa bisitatu zuten eta Anbotu jate txean bazkaldu zuten. Arratsaldean, berriz, paseatu, erakusleihoak ikusi, tranbian ibili eta manifestazioan hartu zuten parte. Egund polita pasatu ondoren, gauean etxera itzuli ziren. /A. G.



Osorok, Rekaldek eta Olasagarrek mahainguru interesgarria eskaini zuten.

## LABUR

### Eskoriatzan sortu berri den 'Egunkaria'-ren aldeko batzordeak lanuztea egin zuen atzo


Egunkaria-ko langileek eta Kontseiluak Euskaldunon Egunkaria-ren alde deitutako Elkartasun Egunean, Eskoriatzako Egunkaria-ren aldeko batzordeak hainbat ekintza egin zituen atzo, eguna. Eguerdian, enpresetako langileek lanuztea deitu eta herriko plazan kale bilkura egin zuten. Egunkaria-ren aldeko leloa zuen kartela margotu zuten arratsaldean, eta 19:30ean, harpidetzak egiteko mahaia jarri zuten. Gero, herritarrek kale bilkura egin zuten plazan.



**EDURNE**

ESTETIKAN  
ESPEZIALIZATUTAKO  
ZENTRUA

Aranburuzabala 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA



Elektroterapia.

**ALDATZ**  
**TABERNA**

ESKORIATZA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8  
ESKORIATZA  
943 71 40 63



**MIRENTXU**  
**TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67

# 'Ez geala, ba geala amalaumila emen geala' lelopean elkartu ziren 'sorginak'

AINTZANE GARDOKI

Sorginak taldeak joan den martxoaren 8an antolatu zuen bazkarian 30 emakume elkartu ziren. Bapo bazkaldu eta gero, Arrasateko Gau Alai taldearen doinuekin gorputzak gogotik astindu zituzten, iluntzera arte. Aurten ere ohorezko hiru *sorgin* izendatu zituzten.

Goibel guzien petik, sasi guzien gainetik, ordu laurden bat arata, berze bat unata. Ez geala, bageala amalaumila emen geala, zioen Sorginak taldearen aurtengo leloak. Baina horrez gain, *Gerrarik ez*, *Adierazpen askatasuna* eta *Nunca Mais* ere aldarrikatu zituzten Gatzagako emakumeek, kideen artean banatu zituzten eskapularioetan. Joan den zapatuan, Emakumearen Nazioarteko Egunean, 25 emakumek eman zuten izena Sorginak taldeak antolatutako bazkaria joateko. Baina azkeneko momentuan beste bost joan ziren. Hortaz, 30 emakumek pasatu zuten eguna elkarrekin. Emakumeok apur bat estutu eta denondako lekua egon zen.

Aiora Elkorobarrutia izan zen gazteena (18 urte) bazkarian eta gaur, egubakoitza, 85 urte bete dituen Matilde Arrese izan zen nagusiena. Bapo bazkaldu eta gero, Arrasateko Gau Alai taldearekin dantzaldia izan zuten emakumeek. Dantzaldian, urtero moduan, hiru isuski zozketatu zituzten. Pantxi Ibartzabal, Blanki Arana eta Aintzane Gardoki izendatu zituzten aurtengo ohorezko *sorgin*. "Isuskia guztiok izaten dugunean urrutiti baino urrutirago *egingo dugu hegaz*", esan zuten Sorginak taldeko kideek.

## BIDAIA DATORREN MAIATZEAN

Bestalde, aurtengo bidaia nora egin erabakitzeko dagoen arren, Asturias aipatu zuten *sorginek* hautagai moduan. Datorren maiatzean egingo dute bidaia. Apirilean, bestalde, Sorginak taldeak batzar orokorra egingo du, eta orduan erabakiko dute, besteak beste, bidaia nora egin. Eta datozen hilabeteotan egingo dituzten ekintzak ere zehaztuko dituzte batzarrean.



Sarrerakoak, arkume ederra eta pastela izan zituzten bazkaritarako emakumeek.



Gau Alai taldeak giro ederra jarri zuen zapatuan Leintz Gatzagan.



Paquito chocolatero kantarekin gogotik egin zuten barre emakumeek.




Aintzane, Pantxik eta Blankik *hegaz egiteko* lehenengo ahaleginak egin zituzten.

*'Gerrarik ez',  
'Adierazpen  
askatasuna' eta  
'Nunca Mais'  
aldarrikatu zituzten*

*Gaur, egubakoitza,  
85 urte bete dituen  
Matilde Arrese izan  
zen nagusiena  
bazkarian*

*Pantxi Ibartzabal,  
Blanki Arana eta  
Aintzane Gardoki  
izendatu zituzten  
ohorezko 'sorgin'*

*Bidaia nora egin ez  
dago guztiz  
erabakita, baina  
baliteke Asturias  
aldera joatea*



**FAGOR**

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Gastañadui ezua 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



**TOKI  
ALAI**

**TABERNA**

**Karajiloetan  
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida

## Zure etxearen osasun onerako



RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA  
**"R.E.L.E."**  
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65  
Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

**AITZORROTZ**  
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta
- Atezain automatikoak
- eta konponketa
- Antena kolektiboak
- Instalazio elektrikoak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETA

**AIDE GAS S.L.**

Loramendi 8, Aretxabaleta.  
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak  
Bainuak • Iturgintza**

**PINTURAS**  
ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz. ESKORIATZA  
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

*Jon Axpe Oyanguren*



**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • Iimatizazioa

**L. GONZALEZ**  
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABALETA  
686 113 581 / 943 79 65 46

**TXOMIN**  
igeltserotza  
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20  
607 739 835 / 943 79 63 94



**URKO**  
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenumendu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Dintura eta dekorazioa



**Gimbert**

San Migel 13, behea C  
ARETXABALETA  
609 143 119

**ARETXABALETA**  
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA



**MUSAKOLA**  
Pinturak

Durana 27, 3. solairua  
ARETXABALETA  
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

**J.J. ITURGINTZA**  
IRURE



URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE 15  
ARETXABALETA

943 793 187

# Karapaixo Garizumako opari goxoa



*Aretxabaleta okindegia*

Loramendi, 6 (943 77 17 19) eta Basabe, 2 (943 77 00 81)  
Aretxabaleta. Bertako okina.